ASTEKARIA - 2011ko irailaren 23an - XV. urtea - Usurbil, 461. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

Noaua!!

Irrien Lagunak elkartuko dira igandean

Mintzalagun, hitz eginez euskara ikasi

Ondo pasa San Praixkuak!
Petronor
E/S Aginaga
Guregas- Grupo-Gureak
N-634 P.K. 7,6 Aginaga
GUREGAS
GRUPO GUREAK


Eiza
denda
Ondo pasa
SAN PRAIXKUAK!
Erribera 8, Aginaga
943 36 12 06

Zure sagardoa egiteko behar duzun guztia daukagu!
ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK
ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
alkartasuna@alkartasuna.com
Atallu industraldea, 6-26 lokala
943 36 11 14

Albistea iruditan !

Datorren astean, Auzolan Topaketak

Duela urte eta erdi abiatu zen Auzolan egitasmoa, "egungo gizarte ereduak gure beharrak asetzen ez dituela eta jendartearen bizi-baldintzak geroz eta kaskarragoak direla ikusirik, bestelako eredu baten alde hemen eta orain lanean hasteko helburua duena". Irailaren 30etik urriaren 2ra, Auzolan Topaketak egingo dira gure herrian eta, iragartzeko, pasa den larunbatean prentsaurrekoa eskaini zuten Artzabalen.

Topaketa hauetan parte hartzeko, izenematea www.auzolan.info gunean egin behar da, eta 30 euroko bonoa eskuratuz, topaketetan parte hartu ahal izanen da. Topaketen azken egunean "Auzolanaren liburua" aurkeztuko dute.

ARGAZKIAN, TOPAKETEN ANTOLATZAILEAK ETA UDAL ORDEZKARIAK.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LUIS ARANALDE

Servet

Hil honen 08an hasi zen Azkoitian, Insausti jauregian, hain zuzen, Zientzien eta Tekniken Europa eta Amerikako nazioarteko 11. batzarra. Miguel Serveten jaiotzaren 500. urteurrena dela eta, Jose Maria Urkiak bere ibilbide paregabe eta dramatikoaz hitz egin zuen. Galdetu zitzaionean zergatik hasten zuen Kongresua Servetez mintzatuz, zera erantzun zuen: "jakintsuaz aparte, kontzientzi askatasunaren aitzindari izan zelako".

Egia esan, komunikabideek ez diote garrantzi handirik eman Serveten obrari, ezta bere ikerketa lanei ere. Honako lerro hauetan laburtuko nuke bere biografia:

1511ko urriaren 27an jaio zen Sigenan, Huescan. Oso aditua zen astronomian, geografian, teologian eta batez ere, medikuntzan. Medikuntzan izan zuen batez ere ospe handia; biriketako odolaren zirkulazioaz asko ikertu eta idatzi zuen.

Erreforma protestantean parte hartu zuen, baina, bere teologia ez zetorren bat garai hartako ideiekin; adibidez: Trinitate edo Hirutasun Santuaren gainean; hauerren bataioaren aurka zegoen; bere ustez, errito horrek heldutasuna eskatzen du, beraz, ez du zentzurik umetan sakramentu hori hartzeak. Jesusen antzera, hogeita hamar bat urte behar omen dira bataiatu ahal izateko. Bere kristautasuna panteista samarra zen, hau da, Jainkoa bizidun guztiengan dagoela esaten zuen, mundu osoa betetzen duela bere presentziaz .

Calvino protestante frantziarrak (1509-1564) eta eliza katolikoak, ez zuten etsi Servet-en ideiak gaitzetsi arte. Ez hori bakarrik, fisikoki desagerrarazi nahi izan zuten eta baita lortu ere. Heriotzara kondenatu zuten, sutara, hain zuzen. Hara zer esaten zuen Calvinok jarri zioten zigorraz: "arrazoi askorengatik kondenatzen zaitugu, Servet Jauna; eraman zaitzatela, lot zaitzatela hesola bati eta erre zure liburuekin batera; hauts bihurtuta ikusi nahi dut zure gorputz osoa; horrela izango zara benetako eskarmentua etorkizunean".

Stefan Zwueig idazlearen ustez, "gizon bat hiltzea bere ideiengatik ez da ideiak hiltzea, pertsona hiltzea baizik". Zenbat aldiz gertatu den gauza bera mendeetan zehar, eta hala ere, oraindik ez dugu ikasi ideia ezberdinak errespetatzen, pertsona ezberdinak begirunez tratatzen. Ezjakintasunak edo fanatismo erlijiosoak eraginda, zenbat basatikeria historian zehar. Ezin dugu ikasi nonbait historiak eman nahi digun lezio bikain hori: ezberdinarekin tolerantziaz jokatzea.

Asteazkenean ikusi nuen telebistan erreportaje beldurgarri bat Tanzaniako albinoei buruz. Izenburua "Los blancos de la ira" eta egilea Jon Sistiaga. Hor kontatzen du nola bizi diren pertsona errukarri hauek: baztertuak, erasotuak eta askotan erailak. Oraindik uste dute gajo horiek azal zuriarekin jaio badira, jainkoaren zigorra izan dela beren familiaren edo arbasoren baten bekatuagatik. Ez dituzte pertsonatzat hartzen, espiritu gaiztotzat baizik.

Ez da denbora asko zutabetxo honetan idatzi nuela Hypatiari buruz: nola erre zuten 5. mendean kristau fanatiko batzuek jakintsu eta humanista honen estiloarekin bat ez zetozelako.

Gaur ez dago inkisiziorik jendea heriotzaz zigortzeko, baina, erlijioen zaintzaileak saiatzen dira eta nola gainera, gustukoak ez dituzten teologoak baztertzen, izen ona kentzen, salatzen, hots, Joxe Arregi, Joxe Antonio Pagola, Juan Jose Tamayo eta abar…

Marian Hillar, Serveten biografoak honela dio: "historikoki hitz eginez, Servet hil zen kontzientzi askatasuna eskubide zibil osoa bihur zedin gaurko gizartearentzat".

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - **Luis Aranalde** - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Tuterako argazki lehiaketan garaile

Joan den irailaren 9an, Tuterako jaietako II. Argazki Lehiaketako sari banaketa egin zen. Bertan, hiru sari banatu ziren eta Iñaki Agirresarobek eskuratu zuen lehen saria. Garaikurra eta 300 euro irabazi zituen. Alberto Ortin izan zen bigarrena eta Francisco Javier Munuera izan zen hirugarren. Azken bi hauek, tuterarrak. Jaietan ateratako 31 argazkilariren 54 lan aurkeztu ziren. Sarituriko argazkia datorren urteko Tuterako Santa Anako jaietako kontrazalean argitaratuko da. Argazkiaren erdian ageri da Iñaki Agirresarobe, saria jaso berri.

Garbitzaileei omenaldi beroa

Apirilaren 10ean Andatzpe elkarteko kideek urteroko asanblada egin zuten eta, bazkalondoan, jubilatu adinera iritsi direnei oroigarri bat eman zitzaien. Aurten, omenaldia berezia izan da. Elkartekoek adierazi digutenez, "urte askotan elkarteko garbitzaile ezin hobeak eta jatorrak izan ditugu. Elenak 30 urte eta Doloresek 25 urte jarraian egin dituzte eta, esker onez, oroigarri eta lore sorta bana jaso zuten. Nola ez, bertso moldaketa eta irakurketa gure Pakok egin zuen". Gaur egun, enpresa batek egiten du Andatzpe elkarteko garbiketa lana.

Mintzalagun ekimena ere martxan da

Esperientzia aberasgarri gisa definitzen dute Mintzalagun ekimena, iaztik bertan parte hartzen ari diren Aitziber Elortzak eta Ana Gilek. Euskaldun zahar eta berriak batera hizketan aritzeko aukera ematen dien ekimena martxan da aurten ere. Parte hartzera deitzen dute. Aitziberrek eta Anak behintzat, urrian helduko diote berriz Mintzalaguni.

ANA GIL ETA AITZIBER ELORTZA, MINTZALAGUNEKO PARTAIDEAK.

NOAUA! Zergatik animatu zineten Mintzalagun ekimenean parte hartzera?

Ana Gil. Klaseetara joatearekin batera, euskara ikasteko Mintzalagun aukera oso ona dela iruditzen zait.

Aitziber Elortza. Euskaltegitik deitu zidaten, ia parte hartzeko prest nengoen galdetuz. Bizitza okupatua nuela, baina parkean ordu asko pasatzen nituela esan nien. Eta nahi izatekotan, parkean, arratsaldeko ordutegian ez zitzaidala inporta.

N. Mintzalagun, zer modutan gauzatzen duzue?

A. E. Astean behin, ordubetez jartzen dugu hitzordua, baina ia arratsaldeak uzten digunera arte egoten gara. Gero, noiznahi ikusten gara kalean eta segida ematen zaio.

N. Elkar komunikatzen erraz moldatu zineten?

A. G. Bai. Onena kafe bat hartuz gai interesgarriei buruz hitz egiten aritzea da. Horregatik euskaraz hitz egitea eta ulertzea oso erraza zen guretzat.

A. E. Hasieran elkartzen ginenean hizkuntzari asko begiratzen zioten. Baina gai batean sartzean, beraiek ere askatzen hasten dira.

> ANA GIL
>
> "Klaseetara joatearekin batera, euskara ikasteko Mintzalagun aukera oso ona dela iruditzen zait"

N. Mintzalagunek zer ekarpen egin dizue?

A. G. Euskaraz komunikatzen ikasi eta soltura hartzea.

A. E. Ilusioa egiten zidana zen, euskara zabaldu eta bermatzea. Eta jende gehiagorekin harremana izateko aukera. Beraiei euskal munduan sartzen laguntzen die, eta nik erdal munduarekin ez dut sekula harremanik izan. Bi mundu horiek bat egiten asko laguntzen du Mintzalagunek.

N. Matrikulazio garaia da orain euskaltegian. Euskara ikasi edo hobetu nahi duenari zer esango zeniokete?

A. G. Euskaltegian giro oso ona dago. Ikasten nabil bertan, ikastolan baitut semea eta berari ondo hitz egin eta dena ulertu nahi diot.

A. E. Aberasgarria da. Mintzalagunek euskara praktikan bizitzen laguntzen du. Gero liburuetan gehiago landu nahi duenak primeran dago euskaltegia, dudarik gabe.

Euskara ikasteko gonbita, Buruntzaldeko udal eta euskaltegien eskutik

Eskaintza zabala, ordutegietan malgutasuna eta ikasleentzat diru-laguntzak eskuragarri. Osagaiokin abiatu dute Buruntzaldeko euskaltegiek, hilabete honetan burutzen ari diren matrikulazio kanpaina.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal eta euskaltegietako ordezkariek herritarrei euskara ikasteko gonbita luzatzen diete, irailaren 14an Usurbilgo Udaleko pleno aretoan eskainitako prentsaurrekoan adierazi zutenez.

Aurreko ikasturteari loturiko zenbait daturen berri eman zuten. Iaz, 730 ikasle matrikulatu ziren eskualdeko euskaltegiren batean; 61 Andoainen, 85 Astigarragan, 300 bat Hernanin, 236 Lasarte-Orian eta 48 Usurbilen. Beste datu bat; sei herriotako udalek 119.700 euro banatu zituzten diru-laguntza modura, euskara ikasten ari zirenen artean. Horietatik 10.952 euro Usurbilgoak, eskaera egin zuten 36 ikasleren artean.

Matrikulazio epea zabalik

Euskaltegietako izen emateari buruzko informazio gehiago buruntzaldea.org web orrialdean jaso daiteke; herrika eta mailaka antolatuko diren ikastaroen berri, zer nolako diru-laguntzak eska daitezkeen, norberak duen euskara maila ezagutzeko testak egiteko aukera dago…

Artean, matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du, astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 artean eta 18:00-20:00 artean. Informazio gehiago Etumetan edo: usurbil@aek.org, eta 943 372 00. Euskaltegiak urriaren 3an abiatuko du ikasturte berria.

ARGAZKIAN, UDAL ORDEZKARI ETA EUSKALTEGIETAKO KIDEAK.

Irrien Lagunen Klubak lehen festa Usurbilen ospatuko du igande honetan

Jai orduetan, hainbat aldaketa izango dira herriko trafikoan

Azaroan martxan jarri zuten Irrien Lagunen Klubak, bere eguna, lehen jaialdia Usurbilen ospatuko du, igande honetan. Joan den astean Irrien Lagunen Klubeko eta udal ordezkariek Sutegin burutu zuten aurkezpenean, herritarrei igandean herrira gerturatzeko gonbita luzatu zieten. Bildutako laguntza, Etiopia-Utopia fundaziora bideratuko da. Antolatzaileetako batek, Alex Tellok dakartza zehaztasun gehiago.

AURREKO ASTEAN EGIN ZEN IRRIEN LAGUNAK EGUNAREN AURKEZPENA.

NOAUA! Ekimen berria dugu igandekoa, nola aurkez dezakezu?

Alex Tello. Egun osoko jai handia izango da, adin guztietarako. Egia da, haurren mundutik bideratua dagoela, baina adin guztiei zuzendutakoa da. Egun polita pasatzeko, dantzan, barre eginez, elkarrekin egon eta herriaz gozatzeko. Datozenek ondo pasa eta entretenitzearekin batera, hainbat balore jasoko dituzte.

N. Usurbildarren parte hartze nabarmena izango du ekimen berri honek?

A. T. Herriko taldeei deialdia egin zaie, batzuk animatu dira eta gu pozik. Dantza taldekoek adibidez kalejira egingo dute beraiek ondo ezagutzen duten herrian, pailazoen ikuskizunaren aurretik eskenatokian izango ditugu. Ziortzakoek lan handia egingo dute, buruhandiak izango dira, postuetan egongo dira. Jende asko espero da. Ikastolaren eta Udalaren aldetik erraztasun eta baliabide guztiak eskura jarri dituzte. Etiopia-Utopia taldean ere, usurbildar dezente daude. Zero Zabor taldekoek ere jolasak antolatuko dituzte. Egun horretan Euskal Herri osoko jendea etorriko da. Herrian dagoena ezagutzeko aukera izango dute.

N. Zu zerorrek ere zeregin bat baino gehiago izango duzu igandean?

A. T. Erleen Lagunak egongo dira, Alkartasunakoak azokarekin, Txerriki antzerki taldeko Garbiñe Astiazaran Kukubiltxoren harreran egongo da. Niri dagokidanean, egun horretan denetarik egingo dut. Batetik "ongi etorri Pupu eta Lore" emanaldian bi pertsonaien paperean egongo naiz, Largabista baso zaina eta Martin bertso kultur zalearenean. Arratsaldean, Irrien Lagunekin kanta eta dantza saioan bi pertsonaia horiek egongo dira.

> ALEX TELLO
>
> "Musika, dantza, antzerkia...
> Denetarik egongo da.
> Euskaratik eta euskaraz.
> Euskal jai bat izango da"

Arratsaldeko ikuskizuna, neronek idatzi eta zuzendu dut. Megafoniatik hitz egiten, muntaia lanak… egin beharrekoa egiten ariko naiz eta gustura.

N. Klub honen bidez hainbat balore bultzatu nahi dira, herri honekin lotu izan direnak?

A. T. Bai, dena dago lotua. Klubeko lagunen bidez, hainbat balore lantzen ditugu; elkartasuna, osasuna, kultura, natura, zientzia, euskara… Denonak eta denontzat dira. Herri aberatsa dugu. Elkartasunari dagokionean adibidez, diru-laguntza Etiopia-Utopiakoei emango zaie, behar handia dutelako. Zero zaborrekoen parte hartzearekin bestalde, gogora ekarriko dugu natura zaindu eta maitatzeko gaudela.

N. Topa Eszenikan, emanaldi bat ere antolatu duzue Irrien Lagunekin?

A. T. Irrien Laguneko pertsonaiak adin guztietara gizarteratu nahi ditugu. Ostiralekoa, helduentzako saioa izango da. Berezia izango da. Ezagutzen ez dutenentzat, Irrien Lagunen unibertsoa, ezagutzen hasteko aukera berri bat da. Ander Lipus aktore, Unai Elizasu gai jartzaile, Igor Elortza bertsotan. Emanaldian sorpresak egongo dira.

N. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioak benetan jendetsuak izan ohi dira. Non dago arrakastaren giltzarria?

A. T. Ni neu ere hau guztia asimilatzen nabil oraindik. Txundigarria da. Aurrekoan Hernanin, ia bi hilabetez emanaldirik eskaini gabe, muxuen unea izugarria zen. Hor ikusten da, pailazoek eman digutela irria, baina baita ere muxua. Hor ikusten da maitasun asko dagoela. Hori ez da egun batetik bestera lortu, 23 urte daramatzate edukiak modu pentsatuan eta zainduan ematen. Mamia dago, hori antzematen da.

Eguna bete ekitaldi

HERRI GUNEA

Egun osoan, Urtxintxa elkartearen tailerrak eta "Pupu eta Lore" Puzgarria; Irrien Lagunak informazio postua eta denda.

10:30 Zero Zabor haur jolasa plazan; Kukubiltxoren "Lehiotik Mundura" txotxongilo ikuskizuna Sutegin (1).

11:00 Bonberenea txarangarekin kalejira.

11:30 Klabeliñeren aurkezpena frontoian.

12:00 Usurbilgo dantza taldea frontoian.

12:30 Katxiporretaren "Ongi etorri Pupu eta Lore" saioaren azken emanaldia.

14:00 Herri bazkaria Askatasuna plazan, Etiopia-Utopiaren eskutik (euria eginez gero, bazkaria Udarregi Ikastolan).

15:30 Kukubiltxoren "Lehiotik Mundura" ikuskizuna Sutegin (2).

16:00 Irrien Lagunak Klubeko sari banaketa oholtzan.

17:00 Irrien Lagunekin Kanta eta Dantza ikuskizuna frontoian.

18:00 Txokolatada herriko frontoian, Ziortza taldeak eskainita.

MIKEL LABOA PLAZA

Egun osoan, azoka, Euskal Tonbola ibiltaria, Ekograsen informazio postua eta Etiopia-Utopia informazio postua eta denda.

11:00-14:00 Euskolabelen oilasko eta sagardo dastatze postua.

ARTZABAL EREMUA

Egun osoan, Txatxilipurdirekin tailerrak eta Porrotx eta Largabistaren puzgarria (euria eginez gero, eremu hau, puzgarriak eta tailerrak Kiroldegira eramango dira).

10:30 Kirol Egokitutako jolasak frontoian, Gipuzkoako Federazioaren eskutik.

11:00 Usurbilgo dantza taldea.

12:00 Entzierroa Txatxilipurdi Elkartearen eskutik.

PUPU ETA LORE ERE ETORRIKO DIRA.

13:00 Buruhandiak, Ziortzaren eskutik.

15:00-17:30 Apar festa frontoian eta ur jolasak zelaietan.

FESTAREN AMAIERA: 19:00h.

Informazioa: www.irrienlagunak.com

Antolatzaileak: Irrien Lagunen Kluba eta Etiopia-Utopia Fundazioa.

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Kalitatea Fundazioa.

Topa Eszenikaren asteburua

Irailak 22, osteguna

Antzerkia: "Nik egin beharko&Ko".

Helduentzako antzerkia eta bakarrizketa. Umorea, akrobaziak, klake-a eta sorpresak…

20:30ean Sutegin. Sarrera: 3 euro, egunean bertan.

Antzezlea: Pantxika Lamur.

Irailak 23, ostirala

Ikuskizuna: "Erregea eta bufoia eta Irrien Lagunak".

Bertso-saioa eta antzerkia, bat eginik.

Erregea, bertsolaria: Igor Elortza.

Bufoia, aktorea: Ander Lipus.

Zalduna, gai-jartzailea: Unai Elizasu.

Tarteka, Irrien Lagunak klubeko pertsonaiak ere agertuko dira.

22:00etan Sutegin. Sarrera: 5 euro. Aldez aurretik sarrerak eskuratu ahal izango dira Txiriboga tabernan.

PANTXIKA LAMUR, OSTEGUN HONETAN SUTEGIN ARITUKO DA.

Irailak 24, larunbata

Antzerkia: "8 begi".

Kafe antzerki giroko komedia ero eta erritmo bizikoa.

22:00etan Sutegin. Sarrera: 5 euro.

Aktoreak: Ane Zabala eta Galder Perez (Gilkitxaro Antzerki Taldea).

Trafiko eremu batzuk itxita egongo dira

Irrien Lagunak Egunaren harira, trafiko eremu batzuk itxita egongo dira igande honetan. Hau da Udaltzaingoak igorri digun informazioa:

- Goizeko 10:30etik 14:30era Kale Nagusiko sarrera Oxtape aldetik itxita egongo da. Honez gain, Santuenea edo Bizkarrera daraman bidea ere itxi egingo da.

Erabaki honen helburua, Irrien Lagunak ekitaldira etorri behar duten ibilgailuak industrialdean aparkatzea.

- Erdialdean bizi direnei jakinarazi San Inazio (Alperro buru parean), Zubiaurrenea eta Puntapax kaleak ibilgailuentzat itxita egongo direla arratsaldeko 19:00ak arte.

BORDATXO edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Otar-Goxo
Elikaguiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Udarregi Sariketako lehen finalerdia ospatu da

Igandean ospatu zen, estreinakoz Bota Punttuba bertso eskolak antolatu duen Udarregi Sariketako lehen finalerdia. Bertsolari helduen saioa, Santueneako jaietan burutu zen. Hauxe, Bota Punttuba Bertso Eskolatik saioaren inguruan NOAUA!-ra bidali duten kronika.

SANTUENEKO SAIOAN GIRO EDERRA IZAN ZEN. ARGAZKIA: MIKEL USABIAGA.

70-80 lagun inguratu ziren Santueneako frontoi berrian izan zen bertso bazkarira. Azken orduko aldaketak medio Olaso, Patxi Etxeberria, Rosi Lazkano, Luis Otamendi, Koxme Lizaso eta Josu Oiartzabalek osatu zuten seikotea, hori bai Josu Oiartzabal lehiaketaz kanpo aurkeztu zen seikotea osatze aldera.

BOTA PUNTTUBA

"Saio bizia, kideari ia arnas hartzen utzi gabe erantzunak bata bestearen segidan zetozen"

Saio bizia, etenik gabea, kideari ia arnas hartzen utzi gabe erantzunak bata bestearen segidan zetozen, garai batean bezala. Bertsolaritza bizikletan ibiltzea bezala dela erakutsi ziguten, txirrindulariak entrenamendua falta arren gainean jarri orduko ez da gelditukо duenik. Hasierako urduritasunak eta zalantzek denborarekin indarra galdu zuten eta bakoitza bere hoberena emateko gai izan zen. Zortziko handian hasi ziren eta umorez. Patxi eta Luis Otamendi mugarriekin borrokan aritu ziren bi baserritarren azalean bizi-bizi jardun ondoren Josu eta Rosi Londoneko jatetxe euskaldun berezi batean eztabaidan jardun ziren. Rosi alde batetik eta bestetik saiatu zen saioa arrazoiz josten baina igandean Josu bere onenak ematen aritu zen. Soldaduskako amodio baten ondorioz jaiotako semea, Koxme, Olaso aitaren bila agertu zitzaionean ere barre algarak piztu zituzten. Saioa oso indartsu hasi zen.

Kopletan, bakarka...

Zortziko txikiko ariketak izan ziren segidan. Ez ziren ikaratzen ez, elkarri mikrofonoa kendu behar ziotela zirudien, hori erraztasuna dutena oraindik gure beteranoek! Saioak bere horretan eutsi zion, akaso ez zen beti zortziko handikoen mailara heldu baina erantzun politak izan ziren. Berezia izan zen Koxme eta Patxiren saioa. Adinaren gauzak, gaia ongi entzun gabe hasi zen Koxme eta Patxik buelta emateko maisulan bat eskaini zigun. Patxik Koxme 15 urteko semeari sexu azalpen batzuk eman nahi eta Koxmek jada aitonduta zegoela kontatu zion. "Galdu egin zaio gaur semiai brujula / ez al dakizu Koxme ni aita nauzula" erantzun zion Patxik Koxme gaira berriro lotu zedin eta jendearen algarak kaxkotik ere entzungo ziren! Horrela iritsi ginen seiko motzera eta bikain, arin eta dotore aritu ziren guztiak. Rosiren doinu aldaketa saiakera eskertzekoa eta txalotzekoa.

Kopletan egin zuen beheren saioak, guk esperotakoaren kontra. Bai ordea bakarkakoan, fin, batez ere Patxi Etxeberria berriz ere. Lasartetartutako oriotarrari gai hau egokitu zitzaion "Aitona zer da bertsolaritza?". Ez zituen 5 segundo hartu bi bertsoak pentsatzeko ere eta saioa borobiltzeko perla bat utzi zigun "Biloba maite hau erantzuten ez daukat lan erraza / zuk hala uste badezu ere neretzat ez da jolasa / bertsolaritza da Euskal Herria markatzen duen konpasa / aitona beti hor ibili da herriz herri plazaz plaza / bertsolaritza dezu biloba euskal herrien arnasa".

Datorren zita, Aginagan

Amaieran Patxi sailkatu zuten ikusleek eta Olaso eta Otamendi Izeta eta Tolak osatu zuten epaimahaiak. Garai bateko bertsolaritzak zuen bizitasunaz eta distiraz gozatu genuen bertaratu ginenok eta urteak plazatik kanpo genituenak gustura joan ziren etxera bueltan. Bere horretan darrai Udarregi sariketak, datorren zita Agiñan eta gazteen esku, mereziko du!".

Bi ikastaro antolatu ditu Aginagako Antxomolantxa elkarteak

"Say&Play" ingeles tailerrak
Hasiera: urriak 3 astelehena
Ordutegia: 3-6 urte bitartekoak, astelehenetan 17:00etatik 18:00etara.
7-11 urte bitartekoak, astelehenetan 18:00etatik 19:30era.
Izena emateko: 650 692 458.

Ez da ohiko ikastaroa izango. Haurrek jolas, kantu eta antzerkiaren bitartez ingelesez hitz egiteko aukera izango dute.

Helduentzako Informatika
Hasiera: urriak 5 asteazkena
Ordutegia: 18:30-20:00, asteazken eta ostiraletan.
Izena emateko: 600 484 948.

Ikastaro honek informatika arloan bakoitzak dituen hutsuneak betetzeko eta zalantzak argitzeko balioko du.

Izen-emate gehiegi izango balira, beste talde bat osatzeko aukera dago.

Ikastaroak Santuenea Kultur Elkartearen eskutik

Urrian hasiko dira ikastaroak.

Yoga: asteartea eta osteguna. Ordua: 16.00 eta 20:30.

Tai Chi: asteazkena. Ordua 20:00.

Josketa: asteazkena. Ordua: 16:30.

Informazio gehiago 695 774 951.

N!!

geligarri berezia

Sanpraixku Aginaga

11

Imanol Esnaola eta Xabier Errasti, Pala Txapelketa berriz irabaztetik gertu

Finalerdiak jokatuko dituzte ostegun honetan bertan, irailaren 22an. Orduan erabakiko da finalerako txartela eskuratuko duten. Aginagako Pala Txapelketako iazko irabazleak, Xabier Errasti eta Imanol Esnaola garaipena errepikatzeko asmotan dira. Aginagarrak izanik gainera, hala gertatzen bada, datozen San Praixkuetan ospatuko dute noski.

Aginagako frontoian elkarrizketatu ditugu bi pala jokalariak.

NOAUA! Amaiera gertu du Aginagako Pala Txapelketak. Une honetan zer fasetan da?

Xabier Errasti. Zortzi bikotek eman zuten izena eta lau bikoteko bi talde osatu ziren. Hiruna partida jokatu ditugu. Ostegun honetan finalerdiak ditugu eta astebete barru, finalak.

N. Txapelketak orain arte eman duenari dagokionean, zer nolako balorazioa egin dezakezue?

X. E. Erabaki berri da finalerdia noren aurka jokatuko dugun, Eneko Arregi eta Igor Alkortaren aurka. Usurbilen ere haien aurka jokatu genuen finalerdia eta justu irabazi genuen. Orduko hartan, ia kasualitatez irabazi genuen. Betikoa, partida gogorra izango da eta irabazteko asmotan gabiltza.

N. Kinielarik egin duzue azken fase honetarako? Nolako amaiera izango du aurtengo edizioak?

X. E. Kinielak jendearentzat utziko ditugu. Gurea jokatzea da, eta gero ikusiko da. Guk kiniela egitea ez da erreala.

N. Finalerdiak noren aurka jokatuko dituzuen badakizue. Lehiari begira, elkar ezagutzen zarete aurreko edizioetatik?

X. E. Denak aurreko urteetako jokalari berdinak gara. Jada ez dago sekreturik.

> **Xabier Errasti**
>
> **"Etxean jokatzean, motibazio estra txiki bat izan ohi da"**

N. Aginagan pilota eta palako zaletasunak bizirik dirau ezta?

X. E. Gutaz gain, Manuel Mari Galarragak parte hartu du; Iban Aintzikoak eta Xabier Muruak baita. Nesketan, Dolo, Aitziber, Ane eta Leire, eta baita Ana Mari Errastikoak ere. Frontoia lortzeko hainbeste istilu izan eta gero, orain dugun zaletasuna erakutsiko ez bagenu, tristea izango zen.

N. Frontoi berriak kirol jarduera hauen parte hartzea ere sustatu du beraz?

X. E. Txapelketak antolatzeari dagokionean, dudarik gabe. Usurbilgo klubak ere Aginagan entrenatzen du. Usurbilgo frontoia orain apenas erabiltzen den, herri arteko pilota txapelketa jokatzeko soilik.

Zenbat eta jende gehiago ikusi frontoian, bertako jendeak eta haurrak gehiago aritzen dira. Ikusi besterik ez dago. Zaletasuna bada.

N. Antolatu diren pala eta pilota txapelketak kanpoko parte hartzea ere erakarri dute?

X. E. Pala txapelketa Usurbil mailan egiten dugu. Usurbilgo txapelketan izena ematen duen jende berdintsua aritzen da hemen. Eskuz bai, bailara kluben mailan egiten da deialdia, baina nafarrak eta arabarrak etorri dira.

“Iaz lehenengo mailara igo ginen”

N. Abiatu da Gipuzkoako Pilota Txapelketa. Usurbilek ordezkaritza zabala izango du, tartean zaudete?

X. E. Palaz iaz lehenengo mailara igo ginen eta aurten, senior mailan nahiko jokalari bildu gara. Inoiz baino gehiago, bai palaz baita eskuz jokatzeko ere.

N. Kirol jarduera batean baino gehiagotan aritzen zarete, prest denboraldi berriari ekiteko?

X. E. Bagabiltza bai. Ahal den bezala antolatuko gara. Palaz garbi dago, maila mantentzea da helburua. Eskuz badira bikote politak, ia Xabier Santxo eta, ohorezko mailara igotzen diren. Eta besteak dauden mailan mantentzen diren. Kasualitatez baten bat igotzen bada, ongi etorria izango da.

Santixabeletako Pala Txapelketako finala irabazi zuten Imanolek eta Xabierrek.

Irailak 29 osteguna

Ezinduen arteko pala erakustaldia

Santixabeletan bezala, Aginagako San Praixku jaietan gomazko paleta jokoan arituko dira. Gurpildun aulkian badabiltza ere, kirolaz gozatzeko aukera badutela erakutsiko digute Aginagan eskainiko duten erakustaldian.

Irailak 29 osteguna

Emakumeen pala txapelketako finala

Lehen aldiz, emakumeen arteko pala txapelketa antolatu dute San Praixku jaietan. Baina urte osoan aritzen dira entrenatzen eta jokatzen. Bestetik, pala ikastaroa urrian hasiko da baina izena irailaren 28a baino lehen eman behar da Oiardo kiroldegian.

Irailak 30 ostirala

Aginagako Pilota Txapelketako finalak

Pilotaleku berria inauguratu zutenean hasi ziren Pilota Txapelketa egiten. Bederatzigarren edizioa izango da hauxe. Urmeneta-Elola bikoteak irabazi zuen iazko esku pilota txapelketa. Sancho-Perezen aurkako finalean, 22-14 nagusitu ziren.

Eliza zaharreko kontzertuetatik... oilasko biltzera

Musika eskaintza zabala prestatu du aurtengoan ere, Aginagako Jai Batzordeak. Urriko lehen bi asteburuetan, gauero izango da zer entzun eta dantzatua, bai frontoian, baita Eliza zaharrean ere. Azken gune honetan, herriko musika taldeak jotzekoak dira; Desegin (argazkian) eta Hotzikara, Fan & Go taldearekin batera. Irailaren 30ean izango da, ostiralean. Dj Khankarrek borobilduko du gaua, eta nahi duenak, baita biharamuna hasi ere, goizeko 6:00etan jarri baitu antolakuntzak, oilasko biltzera irteteko asmotan dabiltzanentzat gosaltzeko hitzordua.

Oria ibaia, arraun leku bihurtuko da bosgarrenez

Lehia estua izan zen iazkoan, Aginagako IV. Trainerila Txapelketan. Kaikuk irabazi zuen, baina gertu izan zuen, denbora marka berdintsua egin zuen Oriok ere, segundo erdira ailegatu baitzen helmugara. Hirugarren postua eskuratu zuten etxekoek, Aginagak, garailearengandik lau segundotara amaitu zuten proba. Hondarribia, San Juan, Zarautz, San Pedro eta Igeldo Herria! etorri ziren atzetik. Aurtengoan, bandera nork eramango duen jakiteke dago oraindik. Bosgarren edizioa, urriaren 1ean jokatuko da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Profesionalak eta etxekoak, herri-kiroletan

Olasagasti-Txapartegi eta Etxebeste-Larretxea aurrez aurre jarriko ditu Aginagako Jai Batzordeak datozen jaiotan. Urriaren 4an ospatuko den San Praixku egunez gainera. 18:00etatik aurrera, aizkoran lanik onena egiten saiatuko dira. Gauza bera gertatuko da harrijasotze proban, Izeta II-rekin. Eta aurpegi ezagunen saioekin batera, beste behin, etxekoak ere plazara aterako dira San Praixkuetan. Aginagarrak ere euren artean lehia bizian ikusiko ditugu, herri-kiroletan hain zuzen. Urriaren 2an, 18:00etan hasita.

Aginagako jaietan ere, sabela poz

Ezin liteke behar bezalako festarik ospatu, tartean jan edanik ez bada. San Praixkuetan ere sabela pozteko zenbait hitzordu finkatu dituzte Jai Batzordekoek. Jaietako egun nagusian, urriaren 4an, meza nagusiaren ostean hamaiketako mundiala iragarri dute antolatzaileek jubilatuentzat, Aginaga sagardotegian. Arratsaldean, herri kirol saioen ostean, sagardoa edan eta sardinak dastatzeko aukera egongo da. Urriaren 7an haurren txanda, bazkaria eguerdian eta txokolate jana arratsaldetik hasita. Eta urriaren 1ean herri-afaria antolatu dute.

TXAPARTEGI

harategia

bertako haragia

ondo pasa jaietan!

AGINAGA · 943 361 907

José María Larburu
Garraiatzailea

garraioak
larburu
gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA
943 36 17 35 · 656 791 277

Angulas Mayoz, s.l.

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK

Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA

ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!

"EL ALMACEN DE AGINAGA"

GIPUZKOAKO LEHEN
ALTZARI FABRIKA

ALTZARIAK, SOFAK, KOLTXOIAK...

FABRIKAKO PREZIOAK!!!

Mahaiak, aulkiak, lagelak, sofa-oheak,
literak, sarrerako altzariak,
neurri eta kolore guztietako armairuak...

ORDUTEGIA:
Astelehenetik Larunbatera (ostegunetan jai)
10:00-13:00 eta 16:30-19:30
IGANDEA: 11:00-14:00

ondo pasa jaietan!

Errosti industrialdea (Aginaga sagardotegiaren ondoan)
AGINAGA 943 36 93 59

Egitaraua, San Praixku Jaiak 2011

IRAILAK 29 OSTEGUNA

18:00 Ezinduen pala erakustaldia.
Ondoren Emakumeen Pala Txapelketako I. Finala.
Aginagako IX. Pala Txapelketako gizonezkoen finala.

IRAILAK 30 OSTIRALA

19:00 Jaiei hasiera etxafero eta buruhandiekin.
22:00 Aginagako IX. Txapelketako esku pilota finalak.
24:00 Eliza zaharrean kontzertuak: Desegin, Hotzikara, Fan & Go.
Parranda eder baten ostean, eguna argitzen ikusteko parada oilasko biltzaileetan!

URRIAK 1 LARUNBATA OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

06:00 Oilasko biltzaileen gosaria.
06.30 Oilasko Biltzaileen irteera trikitilariez lagundurik.
16:30 "Zumartxan" txarangarekin Erriberara kalejira.
18:00 Aginagako V. Trainerila Txapelketa.
21:30 Herri afaria frontoian.
Ondoren Ingo al deu-rekin dantzaldia.
03:00 DJ Khankar Eliza zaharrean.
Giro ezin hobea sortuko dugulakoan…

URRIAK 2 IGANDEA

09:00 Tiro platoa.
12:00 "Landarbaso" abesbatza Elizan.
18:00 Herrikoen herri kirolak.
Gazte nahiz heldu egurrean!!!
Zatoz animatzera!!!

URRIAK 4 ASTEARTEA SAN PRAIXKU EGUNA

11:00 Meza nagusia bertsolariekin.
Ondoren, herriko jubilatuentzat itzelezko hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian.
18:00 Herri kirol profesionalak: Aizkoran, Olasagasti-Txapartegi / Etxebeste-Larretxea. Harrijasotzen, Izeta II.
Ondoren, sagardo eta sardin dastaketa bikaina.
Aldi berean, XXIX. Toka Txapelketa herrikoia.

URRIAK 7 OSTIRALA UMEEN EGUNA

10:00 Haurren jokoei hasiera emango zaie.
13:00 Umeentzako bazkari goxo goxoa.
16:30 Puzgarri ezberdinak denontzat.

Jarraian, Txokolate banaketa eta buruhandi gaizto gaiztoak.
21:00 Bertso afaria Eliza Zaharrean: I. Udarregi Sariketa (Bigarren kanporaketa Bota Punttubaren laguntzarekin) Eneritz Zabaleta (Baiona), Aitzol Barandiaran (Ataun), Ane Labaka (Lasarte), Ainhoa Agirrezaldegi (Elgeta), Maialen Velarde (Zumaia), Imanol Lizarazu (Igeldo).

Ondoren, Trikihotsekin dantzaldi ederra, astindu hankak eta gerriak.

URRIAK 8 LARUNBATA

16:00 XXXI. Mus Txapelketa herrikoia.
(Izen ematea 15.30ean).
18:00 Gorriti show-a.
20:00 Herri antzerkia Ludotekan.
00:00 Abiba Dj.
Jarraian, Larra Dj Eliza zaharrean eguna argitu arte.
Ondoren nahi duenarentzat gosaria!

ETXEBESTE
Jatetxea

Eguneko bazkariak

ondo ibili jaietan !!

943 36 27 40

ATXEGA
Arrainak eta Itsaskiak

Ondo pasa San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 **AGINAGA** (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

AGINAGA
SAGARDOTEGIA

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Sanpraixkutan!

ANGULAK ETA ITSASKIAK
Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:
✆ 943 37 27 88 Usurbil
Legarde Kaleko Zumartegi.

Ganbak, langoustinoak, karrikelak, nekora, lanpernak, bura, zentolloa, muxera, karnarolak, olagarroa, ardo txuria.

70€

SEKAÑA

sekaña ERRETEGIA

ondo pasa San Praixkuak!

Aginaga auzoa • 20170 AGINAGA • ✆ 943 362 773

Euripean amaitu zen Baxurde Krossa

Euri jasak ere Baxurde Krossean hartu nahi izan zuen parte. Horrek are gogorrago egin zuen lasterketa. Hala ere, 266 lagunek amaitu zuten 10 kilometroko korrika saioa. Txikiak ere aritu ziren Baxurde Krossean. Azpian dituzue herriko lasterkarien postuak eta denborak.

Antonio Casado eta Claudia Behobide Alkain izan ziren Baxurde Krosseko irabazleak.

Gizonezkoen artean, Iñaki Gerica Juan izan zen lehen usurbildarra, 00:36:37 denboran osatuz.

Emakumezkoen artean, Idoia Ezeiza Iruretagoiena zubietarra izan zen herritarren artean lehena iristen, 00:45:26 denborarekin.

EURI JASAK BETE BETEAN HARRAPATU ZITUEN KORRIKALARIAK. ARGAZKIAN DIREN HAUEK BEHINTZAT UMOREZ HARTU ZUTEN. KROSSEKO BIDEOA IKUSGAI: NOAUA.COM

Partehartzaileen artean, herritarrak nagusi

1	**ANTONIO CASADO FERNANDEZ**	**0:33:07**	**ANSOAIN**
2	**DAVID MARTIN BLAZQUEZ**	**0:34:15**	**LASARTE**
3	**HOSSAIN KAANACHE AMGHIRAF**	**0:34:40**	**ORIO**
8	IÑAKI GERICA JUAN	0:36:37	USURBIL
25	CARLOS FERNANDEZ ESTEBAN	0:40:43	AGINAGA
28	MIKEL ALKORTA ALUSTIZA	0:40:48	USURBIL
36	KOLDO MANTEROLA AIZPURUA	0:41:24	USURBIL
48	AGUSTIN MOLINA CUESTA	0:42:24	USURBIL
56	ARITZ HOLGADO ESNAOLA	0:43:11	USURBIL
57	JON RUEDA ETXEBERRIA	0:43:16	USURBIL
60	JOSU ALUSTIZA NAVARRO	0:43:34	USURBIL
65	JUANJO ESTEVEZ MARTIN	0:43:58	AGINAGA
71	ENEKO PORTU IRASUEGI	0:44:17	USURBIL
72	MIKEL TENA DAVILA	0:44:19	USURBIL
74	AITOR ARTOLA AROZENA	0:44:30	
75	ALEX CASTANDER URRUTIA	0:44:32	USURBIL
78	JOSU ZALAKAIN MARTIJA	0:44:39	USURBIL
87	IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENA	0:45:26	ZUBIETA
90	AXIER DOMINGUEZ PRIETO	0:45:36	USURBIL
103	KOLDO LERTXUNDI AZKUE	0:46:36	USURBIL
104	ROSA URIBE NAVARRO	0:46:38	USURBIL
108	ABBAT MAIOZ MANCISIDOR	0:47:06	AGINAGA
109	GORKA ASTIAZARAN AIZPURUA	0:47:13	USURBIL
110	AITOR ARRUTI BELDARRAIN	0:47:14	USURBIL
113	JOKIN REZOLA MENDIKUTE	0:47:24	USURBIL
117	ALFONSO VIDAL URDAMPILLETA	0:48:01	USURBIL
118	JOSEBA REZOLA EIZAGUIRRE	0:48:02	USURBIL
137	IÑAKI ETXEBARRIA ORBEGOZO	0:49:26	USURBIL
138	UNAI AGIRRE OTEGI	0:49:30	USURBIL
141	KERMAN REKONDO ARZALLUS	0:49:38	USURBIL
142	AITOR JAUREGUI URDAMPILETA	0:49:40	USURBIL
145	IÑIGO UNANUE AGUIRREZABALA	0:49:50	USURBIL
146	F. JAVIER RODRIGUEZ CUENCA	0:50:00	USURBIL
149	DANIEL ITURBE PALACIOS	0:50:18	USURBIL
150	JUAN MARI AGOTE GOIARAN	0:50:21	USURBIL
151	PEIO GISADO BAYON	0:50:22	USURBIL
152	JOSEBA BENGOETXEA	0:50:30	USURBIL
155	MIKEL SANTIAGO GARZON	0:50:52	USURBIL
160	ANDONI UDABE ASTIGARRAGA	0:51:04	USURBIL
165	IÑAKI KORTA HERNANDEZ	0:51:24	USURBIL
166	HARITZ ESNAL ODRIOZOLA	0:51:25	USURBIL
167	MIKEL ARRILLAGA AZKARATE	0:51:26	USURBIL
168	ENEKO MUJIKA MUGERZA	0:51:28	USURBIL
174	JOXEMARI PORTU AZPIROZ	0:52:00	USURBIL
178	FLOREN LANZ BORDAGARAI	0:52:09	USURBIL
179	GERARDO ARMENDARIZ AZPIROZ	0:52:11	USURBIL
180	SERGIO PLAZA SANCHEZ	0:52:13	USURBIL
183	PATXI PAGOLA GOLDARAZENA	0:52:19	USURBIL
186	IÑAKI ERREKONDO SALSAMENDI	0:52:38	USURBIL
191	MANU TORRALBA ALFONSO	0:53:13	
195	ERRAMUN ERRO AIZPURUA	0:53:57	USURBIL
196	IMANOL ALMANDOZ ODRIOZOLA	0:54:00	USURBIL
197	XABIER PAGOLA URANGA	0:54:01	USURBIL
198	JOSEAN RODRIGUEZ MARTINEZ	0:54:02	USURBIL
203	ESTEBAN ROTETA BALERDI	0:54:17	USURBIL
204	GILLERMO RUEDA ETXEBERRIA	0:54:17	USURBIL
205	JON ELORZA IRIGOYEN	0:54:20	USURBIL
212	AIHERT GOIA ARDANUI	0:55:22	USURBIL
213	IMANOL ZALDUA UNANUE	0:55:22	USURBIL
214	NOEMI MONTERO SISTIAGA	0:55:32	ZUBIETA
215	JUAN ANTONIO PRADO ALVAREZ	0:55:33	ZUBIETA
218	AITZIBER EIZAGIRRE ZALDUA	0:55:40	ZUBIETA
219	ASIER PORTULARRUME ISASTI	0:55:40	USURBIL
221	AITZOL ARROSPIDE SARASOLA	0:55:40	USURBIL
222	OIANA BLANCO ETXEBERRIA	0:55:40	
223	IKER URIBARRENA	0:55:41	ZUBIETA
224	JOSU PORTU ALZAGA	0:55:45	USURBIL
231	IKER MANTEROLA MATXAIN	0:56:25	USURBIL
232	MOISES ANDRES ZUBIRIA	0:56:43	USURBIL
234	ISIDRO ZALDUA UNANUE	0:57:15	ZUBIETA
235	URKO GOIKOETXEA ARANTZETA	0:57:17	USURBIL
245	ENERITZ AGIRRE URDANGARIN	0:58:36	
251	MIREN EZEIZA IRURETAGOIENA	0:59:25	
252	ELIXABET APERRIBAI	0:59:25	
253	IMANOL MUJIKA TELLERIA	1:00:17	USURBIL
254	UNAI LATAILLADE AIZPURUA	1:00:19	
255	EGOITZ BORDA ETXEBERRIA	1:00:28	USURBIL
256	IZARO EZPELETA BEREZIARTUA	1:00:31	USURBIL
257	ZURIKO LATAILLADE AIZPURUA	1:00:31	USURBIL
258	XABIER ORBEGOZO MUJIKA	1:00:31	USURBIL
261	JON LIZASO MANTEROLA	1:00:45	AGINAGA
262	IÑIGO PAGOLA URANGA	1:00:58	USURBIL
263	ANA ZURIARRAIN ZAPIRAIN	1:00:59	USURBIL
264	AITOR UDABE ASTIGARRAGA	1:03:53	USURBIL
265	ITZIAR OTXAGABIA AZPITARTE	1:03:55	USURBIL

Informazio iturria: www.herrikrossa.com

Eskubaloi elkarteak zuzendaritza berria osatu du, baina kide berrien bila dabil

Txanpa berriari ekin dio eskubaloi taldeak biltzen dituen Usurbil Kirol Elkarteak. Aurreko denboraldian zehar hainbat bilera burutu zituzten orduko zuzendaritza taldeko kideak euren ardura uztera zihoazelako, baina prozesu baten ostean, aurkitu dituzte kirol elkartea gidatuko dituen kide berriak. Halere, taldea ez dute guztiz osatu, laguntza beharrean dira. Interesdunek eurekin harremanetan jar daitezke, helbide honetara idatzita; usurbilke@gmail.com. Asteburu honetan ekingo dioten denboraldiak ekar dezakeena ahotan hartu dute lerrootan, zuzendaritza berriko kideek.

ARGAZKIAN, USURBIL KE-KO ZUZENDARITZA TALDE BERRIKO BI KIDE.

NOAUA! Zuzendaritza berria osatu duzue. Zenbatek osatzen duzue?

Jose Lorenzo *Manzano*. Zazpi boluntario gaude baina beste hiruzpalau bilatu nahi genituzke. Aurreko taldeak lan handia egin du, ia gainerakook lan bera egin dezakegun. Hasieratik dimititu duten arren, behar denerako laguntzen jarraituko dutela adierazi dute.

Jon Loidi. Entrenatzaileak, jokalari bat eta hiru guraso daude. Aurreko zuzendaritza taldetik jarraitzen duen bakarra neu naiz.

N. Zubi lan horretan, baduzue presazko gairik esku artean?

M. Kudeaketa eta ekonomia alorrak antolatu behar dira. Gai garrantzitsuena enpresetara bisitak egitea da, babesleak bilatzea.

N. Zeintzuk dira denboraldi berrirako osatu dituzuen taldeak?

J. L. Gutxi gorabehera, iaz genituen taldeak mantenduko ditugu. Mutiletan, seniorretan bi talde; 2. Nazional eta territorial mailakoa. 2. Nazional mailara igo den senior nesken taldea dugu aurten. Kadete eta jubenil neskek Euskal Ligan jokatzen jarraituko dute. Aurten, kadete mutilen taldea ez da osatzerik izan. Baina jubenil mutilen taldea aterako dugu, 2. urteko kadete eta jubenilekin.

M. Hiru lan ildo jorratuko ditugu: ekonomia, kirol alorra eta zerbitzuak. Hiru alor horiek zuzendaritza taldekoen artean partekatu beharko lirateke.

> MANZANO
>
> "Inork ez dezala beldurrik izan zuzendaritza taldean sartzeko, ez baita bakarrik egongo"

N. Iazko denboraldiari lotuta, zer balantze egin dezakezue?

M. Kirol alorrean, finkatutako helburuak bete ziren. Baikorra izan da senior mailako nesken taldea mailaz igo izana. 2.nazional maila eta Euskal Liga mantendu dira. Territorial mailako taldea, lehen mailara igotzear egon da. Kadete taldea, Euskal Ligarako igoera fasean sartzear izan zen. Aurten ere iazkoa betetzen badugu, ondo.

J. L. Kudeaketa alorrean, denboraldi baikorra izan zen. Espainiako Txapelketarik ez egoteak horretan lagundu zuen, gastu asko ekartzen baitute. Ondorioz, orain ez gara hutsetik zor piloarekin hasten.

N. Zuzendaritza talde berria sortzeko hainbat bilkura egin dituzue azken hileotan. Burutu duzuen prozesuari buruz zer esan dezakezue?

M. Bilera hauetan esaten zen, jokalariek osatu behar zutela zuzendaritza talde berria. Jokalariak ere prest zeuden. Desados nengoen ordea, jokalariek jokatzera dedikatu behar dutela ulertzen bainuen, entrenatzaileak entrenatzera eta zuzendaritzak zuzentzera. Entrenatzaile moduan dimititu nuen zuzendaritzan sartzeko. Jende bila aritu gara.

J. L. Bilera hauen bidez, talde berria osatzeko prozesuaren jarraipena egin nahi zen.

N. Jende bila zabiltzate. Zuengana jo dezaketen kide berriek, elkarteari zer ekarpen egin diezaiokete ?

M. Klubeko zerbitzuak desberdinak dira; neurketetako bidaiak antolatzea adibidez. Inork ez dezala beldurrik izan zuzendaritza taldean sartzeko, ez baita bakarrik egongo. Beti izango du laguntza. Denok elkarri lagundu behar diogu. Kide gehiago etortzen badira hobe. Ia datozen lau urteetan, jendea batzen joan gaitezkeen, zuzendaritzako kideak kolpera dimititu ez dezaten.

Usurbil Kirol Elkartea, herriko kirol elkarte zaharrenetarikoa

NOAUA! Hedabideetan kaleratu da, Arrate desegin dela. Egunean batean hemen halakorik geratuko balitz, zer galduko luke Usurbilek?

Mantzano. Une batean gerta liteke krisiagatik enpresek ez kolaboratzea. Gastu handia eragiten da hemen, diru hori guztia egunerokotasunetik atera behar da. Baina ez dugu uste halakorik ailegatuko denik.

Jon Loidi. Animatu nahiko nituzke enpresak, beren aukeren barruan, lagundu gaitzatela, eskubaloiak orokorrean, behar baitu. Egunen batean, elkartea desegingo balitz, Usurbilek kirol jarduera nagusietako bat galduko luke. Oker ez banago, Usurbil Kirol Elkartea herriko elkarte zaharrena edo zaharrenetarikoa dugu, 1963an sortua. Bere historia eta ibilbide guztiagatik ez dago beste elkarte bat zerbitzuok ematen dituenik.

N. Txanpa berriari ekiteko ilusionatuta zaudete?

M. Zuzendaritzan sartzen zaren unetik ilusionatua egon behar duzu, ilusioa galtzen bada, gaizki baikoaz. Badakigu denboraldi oso gogorra izango dela, baina hor dago entrenatzaileen eguneroko lana. Zuzendaritzatik jokalariei entrenamendu saioetara etortzea eskatu nahi genieke, oso garrantzitsua baita. Bazkide berriengan interesa dugu. 13 euro ordaintzen dira urtean. Zuzendaritzari esanda, edo neurketetara etorrita apunta daiteke.

ASTEBURU HONETAN HASIKO DA DENBORALDI BERRIA.

J. L. Eskerrak eman nahi genizkioke aurreko zuzendaritza taldeari, urte hauetan guztietan eginiko lan bikainagatik. Zuzendari talde handi bat galdu dugu, baina talde berri egokitu ostean, eskubaloiak orain bezain ondo jarrai dezala espero dugu.

Iñaki Errasti eta Alex Udaberen Kaiku taldea,

San Miguel ligako irabazle

Igandekoarekin zortzi bandera eskuratu ditu Kaikuk, denboraldi ikusgarria eginda. Garaipen honi esker, San Miguel Liga irabazi zuten gainera Sestaoko mutilek, euren zaletuen aurrean. Jokatu diren estropada guztietan, Jose Luis Kortaren mutilek erregulartasun paregabea erakutsi dute eta Ligako koroa bereganatu dute. Talde honetan daude Iñaki Errasti eta Alex Udabe arraunlariak.

Camargok eta Oriok, ordea, maila galdu dute. "Urdaibai auzia" erabaki arte, bi ontziak KAE-1 Ligako klubak izango dira, baina Urdaibaik maila galtzen badu, "Mirotza" ontziak TKE Ligan jarraituko luke.

Pala ikastaroa

Irailaren 28ra arte zabalik dago Usurbilgo Pilota Elkarteak emakumeei zuzenduta antolatua duen pala ikastaroan izen emateko epea. Urrian hasi eta maiatzera arte luzatuko da. Saioak astean behin burutuko dira, ordu eta erdiz. Prezioa, 48 euro. Izen ematea Kiroldegian burutuko da. Beharrezko bakarra: gutxienez 16 urte beteak izatea.

Zubietako duatloirako laguntzaileak behar dira

Urriaren 8an mendi duatloi proba jokatuko da Zubietan, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren barruan. Zubietako Herri Batzarra arituko da antolaketa lanetan, baina berri eman dutenez, 45 boluntario beharko dira, bidegurutzeetan eta frontoi inguruan laguntzeko. Interesdunek 678 453 148 telefono zenbakira dei dezakete.

Asteburuko partidak

Irailak 23 ostirala
Gaueko 21:45ean Aginagan
Paleta goma 3. maila
1- Usurbil / Danok Bat (Mutriku)
(Xabier Murua-Aritz Urdanpilleta)

Paleta goma 1. maila
2- Usurbil / Loiolatarra 1
(Xabier Errasti-Jon Olaizola)

Irailak 25 igandea
Goizeko 10:30ean Aginagan
Kadeteak 3. maila
1- Usurbil / Gazteleku (Andoain)
(Jokin Irazusta - Mikel Portularrume)

Jubenilak binaka 2.maila
2- Usurbil 1 / Añorga 1
(Iñigo Ibargoien - Josu Furundarena)

Nagusiak 2. maila
3- Usurbil 2 / Ilunpe (Azpeitia)
(Xabier Errasti - Laurent Erreka)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Larunbat honetan, ikasturte berriko lehen kantu-jira

Udako isiltasunaren ondoren, Euskal Kantu Taldekoak martxan ditugu. Hauxe igorri diguten oharra: "Susi Elosegi irakaslearen laguntza paregabeaz, berriro kantuz ekingo diogu Usurbilgo Euskal Kantuzaleok. Ilunabarreko 19:00etan Mikel Laboa Plazan elkartuko gara, kalez kaleko dinamikan, Euskal Herriko kultura, eta modu berezian, euskal kantuak eta musika berreskuratzeko asmoz".

19:00ETAN ELKARTUKO DIRA MIKEL LABOA PLAZAN.

Uda ondorengo lehen saioa, beraz, irailaren 24koa izango da. "Kantu zaletasuna bultzatuz, kale-giro goxo bat sortzea gustuko duenak hauxe du auzolan polita. Beraz, ekin kantuari eta goxatu", diote Kantu Taldekoek.

Entseguak, asteartetan

Bestetik, asteartetan, "andereño berarekin, entseguak egingo ditugu Udarregi ikastolako musika-gelan. Hasiera, irailaren 27an emango diogu, ilunabarreko 19:00etatik 20:00etara".

Parte hartzeko izena ematea nahikoa da. Kanturako ez da inongo abilezia berezirik eskatzen, gogoa izatea aski da.

Ekimen honek Usurbilgo udalaren laguntza jasotzen du eta entseguak eta partehartzea doakoa da.

Liztor asiatikoa gure artera iritsi da

Asiatik sartu den liztorrak bertan geratzeko asmo guztia dauka, eta ederki egokitzen ari da. Edozein zomorro jaten omen du, baina batez ere, erleei erasotzen die. Liztor asiatikoa (vespa velutina izen zientifikoa) iaz sartu zen Iparraldetik Gipuzkoara, eta sekulako abailan ari da zabaltzen. Abuztuan, Hernanin bost kabi topatu zituzten. Zubietako Lanbide Eskolaren alboan dagoen zuhaitz handi batean azaldu da azken kabia. Usurbilgo Udaltzaingoak igorri digu ondoko argazkia.

Suhiltzaileak etorri behar izan zuten eskailerarekin, kabia bertatik kentzera.

Julian Urkiola erlezaina izan zen kabia identifikatu eta kentzeko gestioak egin zituena.

SUHILTZAILEAK, KABIA KENTZEN.

Emakumeentzat tailer interesgarriak

Emozioak lantzen eta *Harremanak eta espazio propioa* izeneko bi tailer antolatu ditu Usurbilgo Udalak urritik abendura. Lehenengoa, Pepa Bojo psikologoak zuzenduko du ostegunero, 14:30-16:30 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Harremanei loturiko tailerra, Nagore Aranburu psikologoak gidatuko du. Saioak astelehenero izango dira, 17:00-19:00 artean, hauek ere, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Izen ematea zabalik dago irailaren 28ra arte, astelehen, astearte eta asteazken goizeko 10:00etatik 14:30etara Udal Parekidetasun zerbitzura deituta, 943 371 951 telefonora alegia, edota berdintasuna@usurbil.net helbidera mezu bat bidalita.

"Kontserbak eta mermeladak" ikastaroa

Ikastaro berria antolatu du Usurbiltzen Elkarteak, larunbat honetarako, irailaren 24rako; "Kontserbak eta mermeladak" izenekoa. Agerialden burutuko den saioa Amaia Irazustak gidatuko du. Goizez, 10:30-13:00 artean izango da. Izena aldez aurretik eman behar da: usurbiltzen@gmail.com

Kontzertua Akerran

Ostiral honetarako Akerrakoek kontzertu gaua antolatu dute Txokoalden kokaturiko gaztetxean. Gaueko 23:30ak aldera hasita, Blaka, Arima Sutan eta Gabba Gabba Hey (Ramonesen tributolariak) taldeen musika entzuteko aukera egongo da.

Agenda!

Irailak 22 osteguna
- **Nik egin beharko & Ko.** 20:30ean Sutegin. Sarrera 3 euro.

Irailak 23 ostirala
- **DYAren hitzaldia.** 17:00etan Artzabalen.
- **"Erregea eta bufoia"**, 22:00etan Sutegin. Sarrera: 5 euro.

Irailak 24 larunbata
- **Kantu Jira.** 19:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazan.
- **"8 begi"**, antzerkia Sutegin. 22:00.

Goardiako farmaziak

Irailak 22, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 23, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 24, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 25, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 26, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 27, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 28, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 29, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 30, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 1, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 2, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

www.noaua.com webgunean 2011ko egutegia

DYAren hitzaldia Artzabalen

Lehenengo larrialdiei buruzko hitzaldia antolatu du Gure Pakea elkarteak, ostiral honetarako, irailaren 23rako. DYA-ko ordezkariak hizlari lanetan jarriko dituen ekitaldia, arratsaldeko 17:00etan hasiko da Artzabalen, "lehenengo larrialdian, zer egin eta zer ez egin" izenburupean.

GURE PAKEAK ANTOLATU DUEN HITZALDIA 17:00ETAN HASIKO DA.

Urriaren 2an, omenaldia

Urtero moduan, urriko lehen igandean, hilaren 2an aurten 80 urte betetzen dituzten herritarrak omenduko ditu Gure Pakea elkarteak. Lehenbizi 12:00etan hil direnez oroitzeko meza izango da, eta 14:00etan bazkaria antolatu dute Atxega jatetxean. Omenaldira joateko asmotan direnek izena emateko azken eguna, ostegun hau, irailaren 22a dute. 35 euro sartu beharko dituzte bi kontu korronte zenbaki hauetako batean, eta aipatu egun hau baino lehen, txartelak Gure Pakeak Artzabalen duen egoitzan jaso beharko dira; 3035 0140 31 1401018416 (Euskadiko Kutxa) eta 2101 0069 11 0002532471 (Kutxa).

Helduen Hezkuntzan (EPA) matrikulazio epea zabalik

Alfabetatzea, DBH-ko Eskola Graduatua atera, unibertsitatean sartzeko hauta-froga prestatu, gaztelania etorkinentzat, hizkuntzak (euskara, ingelesa, frantsesa), informatika, literatura eta historia tailerrak, elikadura, artea, marrazketa, irteera hezigarriak… Eskaintza zabala prestatu dute aurtengoan ere, Usurbilgo Helduen Hezkuntzan, EPA-n. Matrikulazio epea zabaldu dute jada. Izena Agerialden eman liteke, astelehenetik ostiralera, goizez 9:00-13:00 artean eta arratsaldez, 15:00-19:00 artean. Informazio gehiago 943 361 273 (Usurbilgo egoitza) eta 943 366 608 (Lasarte-Oriako egoitza) telefono zenbakietan. EPA-koek gonbita luzatua diete interesdun herritarrei, "denok gaude ikasteko sasoian".

55ekoen kinto-afaria

Urriaren 15erako kinto-afaria antolatu dute 1955. urtean jaio zirenentzat, Antxetan. Izena aldez aurretik eman behar da, urriaren 7a baino lehen: 675 717 020 (Miguel Angel Martin) edo 943 366 460 (Imanol Aranburu).

46koen kinto bazkaria

Datorren urriaren 9rako 1946. urtean jaiotakoen kinto bazkaria antolatu dute, Antxetan. Irailaren 30a baino lehen eman behar da izena, Laurok liburu dendan. Edo telefonoz: 943 363 448.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa

Bateragune auziko epaia salatzeko manifestazio nazionala burutuko da Bilbon, "epaiketarik ez, zigorrik ez, eskubide guztiak guztiontzat" lemapean. Autobusa antolatu da Usurbilen. Apuntatzeko zerrendak ohiko lekuetan egongo dira.

ETXEBIZITZA

- Etxe bat alokatzen da Etxealdia auzoan. 60 metro karratukoa. 685 761 079.
- Etxebizitza bat salgai edo alokairuan Usurbilgo erdigunean. 63,00 Metro. 2 gela, 2 komun eta sukalde-egongela. 3 urte. 639 992577
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitsua eta berritua. 637225620.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunto kalean. Tlf: 656.78.10.59
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf.: 637 110 069.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... Tlf.: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Neska euskalduna eta usurbildarra eskaintzen da, goizetan haurrak zaintzeko. Tlf.: 637 110 069.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak zaintzeko, orduka edo interna moduan. Paperak ditut. 660 525 715.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat . 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurtegira eramango gaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- 2 sofa indibidualak, izoki kolorekoak oparitzeko. Mari Karmen. Telf: 653 741 932
- Kalezar auzotik txirrindula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditu, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko modeloa, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan koxka bat dauka egin berria. Diru konpensazioa eskaintzen dut balore sentimentala handia daukalako neuretzat. Irene 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota bat jaso zuen Udaltzaingoak Zubiaurrenea 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaletxean jaso dezake.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserrirako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

Jada 3 urte! Muxu potolo bana gure bi bitxitoei 23an, etxeko guztion partez. Pila pila maite zaituztegu!

Zorionak Olatz! 8 urte beteko dituzu irailaren 22an. Zorionak eta besarkada bat, etxekoen eta ahizpa Maiderren partez!

Zorionak Oihan, Ostiralean zazpi urte betetzen dituzu. Txokolate eta bizkotxo goxoa prestatu eta primeran pasako dugu. Muxu handi bat, Unax, June, Anje eta Aratzen partez.

aek-k hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



usurbil

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL

eman izena

azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

943 37 20 01

usurbil@aek.org

Ofizioen gida

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
663 08 76 71
943 24 34 65
Barne eta kanpoko lanak

Josue Igeltseritza
Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL
606 37 21 05
Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470
kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue
teilatuak eta fatxadak
943 69 68 52
620 80 01 86
Obaba kalea 29, Asteasu

Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA
659 602 789
erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA ARANGUREN
ITURGINTZA
943 83 00 72
659 88 39 12

Antonio Urruzola
AROZTEGIA
Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arragi Imanol
AROZTEGIA
943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

izagirrelektrizitatea@hotmail.com
izAgirre
Elektrizitatea
Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87
Goiz Argi etxea nº 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

PLADUR
PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra
943 00 85 44 - 634 45 78 78

MARGOAK - PAPERAK
FERNANDO PINTURAK
ENPAPELAKETAK eta PINTURAK OROKORREAN
nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19